

«Kronika hutsa egin zezakeen beste batek, baina nik literaturaren jolasa nahi nuen»

Nobela berria aurkeztu zuen apirilean. Izenburua ere hilabetearena: *Apirila* (Susa). 1766an Iñigo Aranbarriren (Azkoitia, 1963) sorlekuan izan zen matxinadaren gaineko eleberria, egilearen estilo zorrotz, gartsu eta zirti-zartakoan eder idatzia.

| MIEL A. ELUSTONDO |
Argazkiak: Zaldi Ero

Intsausti jauregira ekarri nahi izan gaituzu elkarriketan.

Nobelara bueltatzekotan, Intsaustira etorri beharra zegoen. Nobelan ageri den espazio sinboliko nagusietako bat da –bailarako beste edozein industriaderekin batera–, Intsausti jauregia, Peñafloidako kondearen etxea, Euskalerriko Adiskideen Elkartaren egoitza. Industriari dagokionez, hortxe ageri da krisiaren ezpala, hasieratik amaierara.

Adiskideen Elkartaren 250. urteurrena ospatu berri dute Intsausti jauregian bertan. 1766ko matxinadaren hotsik ez haien diskurtsoan.

Nola, bada! Batari buruz hitz egiteak ez luke besteaz hitz egitea galarazi behar. Inork ez du zalantzan jartzen Peñafloidako kondeak-eta zer aurrerapen ekarri zituzten, zientzian, medikuntzan eta abarretan, baina matxinadaren historia ezkutatu beharrik ez dago. Peñafloidako kondeak-eta heriotza zigorra eskatu zuten matxinoentzat, zauriturik ere ia izan ez zenean! Alfonso de Otazu historialariak berak esaten du hori, *La represión de la matxada de 1766* liburuan, eta Aita Esterripa-ren gutunetan, eta epaiketako deklarazioetan... XX. mendean, berriz, honi buruz jardun zuen lehena Ildefonso Gurrutxaga izan zen. Azkoiti-Azpeitietako matxinadaz jardun nahi izatekotan, klabea da Gurrutxaga.

Zure kasuan, baita Ramon Etxezarreta ere...

80ko hamarkadaren hasieran proiektu berriak abiarazi zituen Etxezarretak, Azpeitiko uda-

lean zinegotzi izan zenean. Liburu bilduma bat, esate baterako. Ordukoa da Pako Aristiren lehenengo liburua, adibidez. Etxezarretak, besteak beste, matxinada garai hura aipatu izan zuen; “aztertzea merezi duen garaia”, zioen... Matxinadaren historia ez da transmititu, Ildefonso Gurrutxagak buruan ibili zuen, Ramon Etxezarretak ere bai, bada Leo Etxeberriaren prentsa artikulua bat ere... Iputargiak dira gau ilunean. Gerora heldu dira David Zapiain, Iñurrategi, Fernandez de Albadalejo... Mundu bat da kontatu ez

dena. Zalduntxoak gora eta behera ibili gaituzte, Xabier Muniberen izena eman zitzaion Azkoitiko ikas-tolari, Peñafloidako kondeari berunezko burua egin zaio, plaza eskaini Zalduntxoiei... Auziaren beste aldean egon zen herri xeheari estalki eder bat baino ez zaio eman.

**“Agiri zaharrak aztertu
besterik ez dago ikusteko
emakumeak matxinadan
izan zuen indarra”**

Zergatik ez da zabaldu?

Matxinadak historia ikuspegi ekonomikotik aztertzea behartzen zaituelako. Ikusi besterik ez dago Euskalerriko Adiskideen Elkartea nork bultzatu zuen. Gurrutxagaren salaketaren ostean Bilbo erorian *roedoreska* sartu zen Areilza izan zen bultzatzaile nagusietakoa gerra ondoren. Nola jarriko zuten begia matxinoen eskaeretan? Academia Errantekoak, beste horrenbeste. Promozionatu beharreko imajinarioa, gu ume ginela aurrezki kutxetako albumek eskaintzen ziguten hura zen: Blas de Lezo, Elkano, Okendo, Urdaneta, Loiolako Inazio... Mundu hori: “Gu izan gara!”, esanez bezala. Bai, “gu izan gara, eta,



gainera, Espainiaren muina izan gara!” Espainia euskaldunen eta gaztelauen arteko itun ekonomikoaren ondorio. Joxe Azurmendik Manifestu atzeratuan salatzen duen mundu hori. Azurmendirik, Arestirik, Txillardegirik gabeko kultur gile organiko haiek *“tema vasco”* batean daude laketuak, eta 1766ko matxinoek zikina baino ez dakarkie.

“Joera dugu iragana zuri-beltzean erakusteko, baina uste dut alderantziz behar duela: ordukoa, koloretan; oraingoa, zuri-beltzean”.

Argitara ekarri duzu zuk, literatura eginik...

Bi planotan nuen materiala. Hor zen matxinadaren historia, bai, baina, bestetik, banuen kezka, azken aldian gure bailaran zartateko handiak izan dira. Krisia, lantegiak ixtea, jende tristatua... Batak deitu zion besteari: oraingoan neoliberalismo basatia dugu, eta orduan, berriz, liberalismoaren hasiera, erre-

gimen zaharraren akabera, sistema moralarena. Gizarte piramide indarrean zegoen: behean zegoena, etsita bizi zen, pobre zen eta bere patua onartzea zegoen. Goian zegoena, aldiz, behartuta zegoen arau moral bat betetzera, eta, ondorioz, behekoa, menpekoa, zaintzera; neurri batean, behintzat. Liberalismoarekin azpikoz gora joan zen sistema hori. Etimologiak gezurra dio, liberalismoak ez du libertatearekin zerikusirik. Eta aldaketa hauek herri xehea da dolarean jotzen dena. Ez da halabeharra. Urolaldeko matxinoen arrazoi antzekoengatik altxatu ziren Chiapasen ere komunitate indigenak.

Hortxe zure Zapataren oihana, garai bateko lana...

1766ko matxinoek ere aski dute zapatistatik. Ez dute boterea lortzeko asmorik. “Ez tratatu jendea horrela!”, diote. Duintasunaren aldarri egiten dute. Gure bailaran, eta 1766ko garai hartan, aurreneko egunetan bi ziren eskatzen zituzten gauzak: batetik, alearen prezioa jais-tea, jan ahal izateko; gaur egun, antzeko gertatzen da Mexikon. Nahikoa da arto opila zentimo batzuk garestitzea, kaleak su hartzeko. 1766an, beste eskaera zen neurri bakarra ezartzea, bi neurri ezberdin erabili beharrean. Gaur egun bankuek jokatzen duten moduan jokatzen baituzten orduan nagusiek: dolarrak erostean, garesti; saltzean, merke. Berdin alearekin. Espekulazioa salatzen ari ziren.

Errukia, justizia

“80ko hamarkadan bazen lelo bat: *‘Obrero despedido, patrón colgado’* (Langilea kaleratua, nagusia urkatua). Ugazabaren panpina esekitzen zuten orduan garabi muturretik. Gaur egun, aldiz, irudi bera erabiltzen da, baina langilea ageri da esekita, ez nagusia! Lehen, justizia primitiboa sinbolizatzen zuen fikziozko mendeku hark; gaur egun errukia bilatzen da. Irudiaren indarra da, eta hedabideek dute giltza askotan. Gure bailaran, Corrugadoseko langileek gurutzez josi zituzten errepide bazterrak. Justizia eta errukia... ematen du zer pentsatua”.



Garia zen orduan...

Eta gainerakoak. Jauntxoek neurri bakarra onartzea lortu zuten matxinatuek, eta, ondoren, bestelakoak eskatzen hasi ziren, aurretik jarritako isunak bertan behera uzteko, adibidez. Narrosko markesak epailearen aurrean egindako deklarazioan ikusten da hau ondo, matxino batzuek lur sail handiak zatitzeko eskatzen zutela dio. Nekazaritza erreforma eskatzen ari ziren, nolabait. Eta gehiago, udal bilkurak irekiak izatea, plazan egitea, eta pertsona bakoitzak boto bana izatea. Hor bada halako kezka politiko mamitu gabe bat, justizia soziala eskatzen duena.

Azkoitiko Zalduntxoak izu ageri dira zure lanean.

Horregatik ekin zioten hain gogor matxinatuen kontra. Errotik moztu nahi izan zuten mugimendua, zabaldu ez zedin. Eta, hala ere, zabaldu egin zen Eibar, Mutriku, Errezil... Zalduntxoei laido handia zitzairen herriaren portaera. “Guk, hain ondo zaintzen zaituztegu, eta zuek, ordainetan...”. Jauntxo-en jarrera hori, alegia, behekoak errukiz tratatzekoa. Izan ere, goitik beherakoa da errukia, esker ona du derrigorra. Hala ematen du. Hor ez da justiziarik sartzen. Narrosen edo Enparanen deklarazioetan garbi ikusten da hori: haserre dira “ardo zikin” bat eman die-

“Nobela honek sozialetik duen beste beharko luke psikologikotik”.

“Ez da nire estiloa luze idaztea: nahiago dut laburrean etsi, soberakoak kendu, erritmoari begiratu”

telako edaten; edo eskuan muin ematera behartu dituztelako —hau da, zalduntxoek beraiek horixe egitera behartzen zituzten!—, edo albotik pasaeran ez zutelako kapelarik erantzi... Laidoa da, larderia, jauntxoak mendekura bultzatu zituen.

Zeure herria duzu Azkoitia, 1766an gertatutakoa berritu duzu, baina literatura eginez, nobela, baina ez nobela historikoa...

Beharrezkoa nuen kontrapuntua, orduko matxinada eta errepresioa alde batetik, egungo olatu zapuztaile hau bestetik, baina batasun batean, biak nahastu eta iragana oraina bihurtu arte. Ez nuen nahi bi historia izatea. Beste planteamendu bat eskatuko zukeen hala izatera, luzeago jardun gaurkoaz, oreka behartu bat bilatu, eta nik historia bakarra nahi nuen. Eta, horretarako, bi garaia urtu beharra dago, narrazio bakarra izan dadin. Horretan, parera-parera datorkit eldarnioak eskaintzen duen aukera... Plateraren irudia da, nahi baduzu: plater sakona dugularik, plater hegala dugu, batetik; hor, oraingo garaia dugu. Eta, sakonean, ametsa dugu, eta orduko garai hura... Gaurkoaz luzatzeak ez zuen merezi, jendeak ezagutzen du, badaki: bailara jota dago, hondoa jo du. Beste nobela bat da hori. Joera dugu iragana zuri-beltzean

erakusteko, baina uste dut alderantziz behar duela: ordukoa, koloretan; oraingoa, zuri-bel-tzean. Esteban Alberdiren gaur egungo berri handirik ez dakigu, pixkanaka datorkigu, bakardadea da, zaputza; iraganean murgiltzen garelarik, aldiz, dena beste bizitasun batez ageri da, fresko soziala, itxaropena, zigorra. Kontraste horretan saiatu naiz.

Esteban Alberdik bezainbat protagonismo du Teresak, haren emazte izanak denbora presen-tean, eta haren andrezkoa denbora iraga-nean...

Iraganera egin orduko, Teresak hartzen du indar, bai. Agiri zaharrak aztertu besterik ez dago ikusteko emakumeak matxinadan izan zuen indarra: horra emakumeen Zaragozako kartzela, esate baterako. Emakumeen pre-sentzia hori markatu nahi nuen... Bestalde, Esteban, hala presentean nola iraganean, bietan ere erdi lotan dago: batean, burua kolpatu duelako; bestean, gaixorik dagoelako, nafarreriak jota. Nobelak, gizon hori eldarniotan dabil aurrera eta atzera, eta, egu-neroko bizimoduan benetan ari dena ema-kumea da: Teresa, bai iraganean, bai presen-tean. Horregatik jo dut bi denborak difuminatzera, eta horrekin batera, bi per-sonaia nagusiak: bata desagertu eran har-tzen du indar bestea.

Gar handiagoa du Teresak, Estebanek baino...

Teresa matxinatu egiten da. Gaur egungo Esteban etsiak hartuta dago, zuloan; ez dago antolatua. Etsipena handia da, edo da indibi-dualismoa, norbanakoaren erorialdia.

***Apirila* nobela soziala dela irakurri dut non edo non...**

Sozialetik duen beste beharko luke psikologi-kotik. Nobelak bazuen manikeismoaren arriskua, alde batetik sinpatikoak zaizkigunak jarritz, eta bestean antipatikoak. Baina antipa-tikoetan ere nork bere kolorea behar du. Peñaflorida eta Narros ez dira berdinak, eta Arriola Donostiako alkateak berak ere bere arrazoiak eta bere jokaerak ditu. Matxinoen artean, berdin, denetarik dago. Idazlea behar-tuta dago maila honetako errazkerietatik urruntzen.

Soziala nahiz psikologikoa, Iñigo Aranbarriren estiloan idatzitakoa: hizkera, doia; begirada, zorrotza; idazkera, dotorea...

Seguru asko ez dakit beste era batera idazten. Estilo pertsonala lortzea da kontua. Hori lor-tuz gero, nahikoa. Ez gara hasiko *Apirila* zaila den, ez den esaten, hori geure buruaren kalte-tan izango litzateke-eta. Adierazkortasunaren aldeko hautua egin dut. Lexikoa berreskuratu

dut, bailara honetako hiztegia ere badago, euskara batuarena ere badena, zalantzarik gabe. Elkarriketak laburrak dira, jario handi-rik gabeak, gure hitz egiteko modua ere horrelakoa delako, beharbada. Ez dut uste, hala ere, testua gehiegi estutu dudarik. Idaz-leak hartu behar dituen arriskuak dituzu... Dena dela, uste dut idazleak idatzi egin behar duela, ahal duen ondoen. Badakit zenbaitek 800 orrialdeko liburua zukeela matxinada honekin. Ez da nire estiloa: nik nahiago dut laburrean etsi, soberakoak kendu, erritmoari begiratu... Idazkera gizartearekin batera doa. Txomin Agirrek gauza asko eta asko esplika-tu beharra zuen, jendeak ez zekielako, bate-tik, baina batez ere moralista handia zelako. Horregatik hainbeste kausal-esplikatio. Gaur egun ezin duzu horrela jardun...

“Literatura asmazioa da, baina askotan ezin duzu errealtatearen eraso saihestu”

“Hura gizona, hura! Zazpi oin t’erdi bai luze, makal zuhaitzaren irudira zuzen”...

Horrelakorik ez espero nire lanean...

Bazenuen gaia, nobela eraikitzea izan duzu lana, idazle zaren horrek...

Kronika hutsa ere egin zezakeen beste batek. Oso bestelako liburua litzateke. Oso polita izan zitekeen, baina nik literaturaren jolasa nahi nuen: pertsonaia difuminatzea, iraganezko pertsona batek gaur bizi duguna bizitzea, bi historia horien artean egiten diren keinuak... Eta galderak. Galderak beti. Zergatik sentitzen du hemengo langa-betu batek gertuago Grezian bere buruari su ematen dion langile etsia bere ikaskide bat baino? Zuzendaritzan dagoena, kalera doa-zenen zerrendak egiten ari dena... Bada hor enpatia unibertsal bat.

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

El borracho burlado, Grand Tourra

“2007an, Grand Tourra antzerki-lan argitaragabea publikatu zen Egan aldizkarian. Grand Tour-a, XVIII. mendean, aberaskumeen erritu inizatikoa zen, esateko moduan; Florentzia, Erroma, Viena, Paris eta beste zenbait herri-tan barrena egiten zuten bidaia. Azkoitiko Altzibar-Jauregitarren etxean agertu zen lan hura, eta

dirudienez bertako sukaldean antzeztu zen 1772an. Obran, etxe-koandrea eta herriko bi emakume ageri dira, bata argiagoa, bestea ergela; zirkuko pailazoen eskema bera dirudi. Klase antzerkia da, *El borracho burlado* den bezala: aberatsak aberatsarentzat egina. Eta zein da, bada, gaia *El borracho burlado*n? Pobreak mozkortu arte edaten du,

eta markesa dela sinestarazten diote. Obraren helburua mailaz igo dela sinestuta bizi den gizajoaren lepotik barre egitea da. Eta handik bi urtera, matxinadarekin, gai bera, errealitate bihurtuta. Jauntxoak mendean hartu dituztela uste duten gizon-emakumeak. Obra klasistak dira, oso garaikoak. Eta eskola sortuko dutenak, gaur arte”.



bada hor beste gai handi bat. Egoera ekonomikoak eragin-dako gatazkak eta erretratu pertsonalak ezin ditugu bazter utzi. Nekez topatuko dugu egoera aproposagorik giza kondizioaz aritzeko, kontraesanetan sakontzeko. Horra idazlearen lana, nola atera hori guztia eguzkitara apustu estetiko garbi batez, nola sartu irakurlea durduza leza-keen zartatekoa esaldi bakar batean...

Justizia hitza erabili duzu arestian...

Matxinadaren kontu honetan injustizia handia egin delako herri xehearekin. Oranera bidali zuten jendea zigortuta, pentsa, Aljerrerraino. Eta Ceutara. Emakumeak Zaragozako

erreformatiora. Kontuizu, gehienak ez ziren itzuliko. Jendea hil egin zen, hil egin zuten, baionetaka hil zuten Hernanin Donostiara zeramatela nobelan ageri den Urreta ize-neko hori, hirurogei urte zituen, zapataria zen... Eta injustiziarik larriena: urteetako isiltasuna. Horregatik, nobelan, benetako izenak ateratzen saiatu naiz, ez naiz ahalegindu fikziozko izenik asmatzen. Azkoitian Garagorri, Txaldako, Brigida Arteaga... Azpeitian Imilaun ezizeneko bat –nekez asmatuko nuen hoberik–, Xaxarki, Akotegi... Hor dira oraindik haien oinordeak... Beste izen batzuk galdu egin dira, zoritxarrez... Hauek matxinadan eta, besteak, bitartean, errepresioa prestatzen. Zapatistak gure begi gandutueta bezain xalo: ez al zuten ikusten zer zetorkien? Donostiako kontsulatuak eta Caracasko errege konpainiak finantzatu zuten errepresioa. Historiaren tolesduretako batek harrapatu zituen bete-betean. ■



Heroi gutxi bazterretan...

Hondoratutako jendea da, alkoholak izorratu duena, depresioak jota dagoena, samurtasunik gabe geratu dena harreman bati heltzeko. Egoera ekonomikoak erabat baldintzatzen du garena. Lehengo batean batek esan zidana: “Iñigo, nobela honetako pertsonaia guztiei izen eta abizenak jarri zizkieat nik!”. Ez dut asmo horrekin egin, baina urte hauetako ekonomi erorialdi hau segitu duenak Esteban Alberdi bezalako jendea ezagutu du, bat baino gehiago. Ikaragarria iruditzen zait irakurlea ondorio horretara heltzea, baina hori ere badu literaturak. Literatura asmazioa da, baina askotan ezin duzu errealitatearen eraso saihestu.

Nobela eginez jakin dugu matxinadaren historia...

Literaturaren eginbeharretako bat ere bada hori. Memoria historikoarena puri-purian bizi izan dugu azken urteetan. Dena den,

“Matxinadaren kontuan egin den injustiziarik larriena: urteetako isiltasuna”.